

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

CURSOS DE VERANO
UDAKO IKASTAROAK

Kulturartekotasuna migratzaileei laguntzeko eta haien inklusio sozialerako

EKAINAK 17 - 18

Sarioko 04. gela erantsia (NUP, Iruñea)

Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak

Gaztelaniaz

Kredituak: 0,5

60 ikaspostu

10 ordu

NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Bukatuta, Concluido

2024ko ekainaren 12a arte

Aretoa irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat.

Irisgarritasun premiarik baduzu, idatzi

cursosdeverano@unavarra.es helbide elektronikora.

2023ko urtarrilaren 1eko biztanle eroldaren arabera, atzerritar jatorriko 120.373 lagun bizi dira Nafarroan. Nafarroako Foru Komunitateak gero eta jatorri gehiagotako biztanleak ditu, eta, horren ondorioz, dibertsitatearekin, herritarren parte-hartzearekin eta inklusio sozialarekin lotutako zenbait desafiari egin behar die aurre.

Genero berdintasuna, pobreziaaren aurkako borroka eta hiri zein komunitate jasangarriak funtsezko helburuak dira Garapen Jasangarrirako Helburuen arloan (GJH), berdintasun handiagoa egon dadin herritar guztien artean. Kontuan hartuta migratzaileek nolako oztopoak izan ditzaketen gizarteratzeko eta zer ondorio dituen genero arrakalak, garrantzitsua da gizarte askotariko eta kohesionatua eraikitzen lagunduko duten estrategiak eta ekintzak ezagutzera ematea.

Hori dela-eta, eremu sozialetan kulturarteko gaiak landuz erantzun alternatiboa ematen zaio gizarte kohesionatu bat sendotzeko beharrari, non aintzat hartuko diren dibertsitateak berezko dituen berezitasunak. Ikastaro honetan, gizarteak gaur egun dituen desafioak eta gizarte inklusiboa eraikitzeko eskaerak eta beharrak hartuko ditugu abiapuntu, eta ezagupenak eta tresnak eskainiko dizkiegu teknikariei, ikasleei eta, oro har, gizarteari kulturartekotasuna Nafarroako esku-hartze, laguntza eta inklusio sozialerako eredu gisa bultzatzeko.

Ikastaro hau, hitzaldi teorikoak aditzeko parada izateaz gainera, parte-hartzaileak esperientziez eta ezagupenez mintzatzeko lekua ere izatea nahiko genuke, non herritarrak izanen baitira protagonista hizlariekin eta gainerako parte-hartzaileekin batera.

NORENTZAT

Arlo sozialeko teknikarientzat, ikasleentzat eta herritar ororentzat.

HELBURUAK

- Tresna teoriko-praktikoak eskaintzea Nafarroan bizi diren migratzaileekin izaten diren esku-hartzeko, laguntzako eta inklusio sozialeko prozesuak errazteko.
- Esku-hartze eta laguntza psikosozialaren eremuetan kohesio soziala eta kulturartekotasuna lantzeko lagungarriak diren neurri, baliabide, ekimen eta estrategiak ezagutzera ematea.
- Ikastaroko parte-hartzaileak beren esperientziez eta ezagupenez mintzatzeko moduko leku bat sortzea, ikastaroan parte hartzen duten herritarren artean jakintzak eta esperientziak trukatzeko.

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Lucía Martínez Virto, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte Laneko Saileko irakaslea eta Gizarte Ekintzako eta berdintasuneko Atalaren zuzendaria.
Marcela Bejarano Riveros, Herritarrei, Bizikidetzari eta Pluralismoari buruzko UNESCO Katedra (NUP).

ASTELEHENA 17 EKAINA

9:15-9:30 Ikastaroari hasiera eta parte-hartzaileei ongietorria ematea

Ikastaroari hasiera ematea

Lucía Martínez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Ekintzako eta Berdintasuneko Atalaren zuzendaria.

Virginia Eraso, Karibu Migratzaileei Harrera eta Lagun Egiteko Zerbitzuko zuzendaria, Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusikoa (Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua, Nafarroako Gobernua).

9:30-11:00 Hitzaldia

Esku-hartze sozialaren kulturarteko ikuspegia

Alexandra Bermudez, soziologoa, Nafarroako CEAREko teknikaria (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea).

Esku-hartze sozialaren kulturarteko ikuspegiari buruzko klase teorikoa

11:00-12:30 Hitzaldia

**Esku-hartze sozialeko praktikan kulturarteko bitartekaritzak duen garrantzia:
Médicos del Mundo Navarra entitateak Nafarroan egiten duen lana**

Blanca Fraile, hezkuntzako teknikaria.

Farmata Watt, Médicos del Mundoko bitartekaria eta esku-hartze sozialeko teknikaria.

12:30-12:45 Atsedena

12:45-14:15 Hitzaldia

Hezkuntza-komunitateko kide sentitzea ingurune transkulturaletan.

Edurne Saiz Velaz, Irakasletzako diplomaduna eta Sexologiako masterduna eta SEI elkarte langilea.

14:15-14:30 Bukaerako ekitaldia

Marcela Bejarano

ASTEARTEA 18 EKAINA

9:30 – 13:00 Hitzaldia

Ikuspegi transkulturalaren praktika osasun mentalaren arloan

Alejandra Carrasco Martín, antropologo soziokulturala eta gizarte langilea.

La Casa Jove - Dar Chabab zerbitzuko koordinatzailea eta SAPPPIR Migratzaileei eta Errefuxiatuei Arreta Psikopatologikoa eta Psikosoziala emateko Zerbitzuko gizarte langilea.

Andrea Urrea Alegre, Osasunaren arloko psikologo orokorra, psikoterapeuta eta irakaslea. La Casa Jove - Dar Chabab zerbitzuko psikologoa (zaurgarritasun egoeran dauden gazte migratzaileak artatzeko zerbitzua), Serveis Residencials - Salesians Sant Jordi zerbitzuko psikologoa eta Konsulta'm +22 proiektuko psikologoa.

13:00-13:15 Atsedena

13:15- 14:30 Mahai-ingurua

Moderatzaileak: Marcela Bejarano / Lucía Martínez.

Inklusio sozialeko eta kulturartekotasuneko esperientziak

Irune Ansa, Lantxotegi elkarte (NUP). Kabia: migratzaileen inklusiorako eta kulturarteko bizikidetzarako programa.

Ruben Lasheras, NUPeko katedraduna. Aukera: NUPen ekimena migratzaile gazteen inklusioa eta haien eta Unibertsitateko ikasleen arteko kulturarteko bizikidetzaren bultzatzeko.

Zaska zurrumurruen kontrako Nafarroako sarea: arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko estrategia.

Quindy Akeju: Afroemakumeak. Komunikabide inklusiboak eta arrazakeriaren aurkako aktibismoa.

14:30-14:45 Bukaerako ekitaldia

Marcela Bejarano/ Lucía Martínez

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Herritarrei, Bizikidetzari eta Pluralismoari buruzko UNESCO Katedra (NUP).

BESTE ANTOLATZAILE BATZUK

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua. Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusia.

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



CÁTEDRA **UNESCO** KATED

ciudadanía	hiritartasuna
convivencia	bizikidetza
pluralismo	aniztasuna



Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua Departamento de Vivien Juventud y Políticas Mig Etxebizitzako, Gazteriak Migrazio Politiketako De

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua